ECUSA

FUNDACIÓN RAMÓN ARECES



EMAKUME IKERTZAILEAK IN

# CANCER WARS

## MINBIZIAREN AURKAKO BORROKA ZIENTZIAN DAGO

QUAN ZHOU & MECUSA


JUDITH AGUDOK (BARTZELONA) BETI IZAN ZUEN ZIENTZIA GUSTUKO. BERE LEHEN ERREFERENTEA "BAZEN BEHIN...BIZITZA" IZAN ZEN
Liluuuuragarria
INSTITUTUAN, UB*-KO IKASTARO BATERA JOAN ZEN
Espainian zientzia egiteko, AEBetan ikasi behar da
Challenge superaccepted
*Bartzelonako Unibertsitatea
BIOLOGIA-KARRERA IKASI ETA DOKTORETZA-TESIA UAB*-N EGIN ONDOREN, FULBRIGHT BEKA IRABAZI ETA 7 URTE NYC-EN PASA ZITUEN
*Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa
EGUN, DANA FARBER INSTITUTUKO MINBIZIAREN IMMUNOLOGIAKO DEPARTAMENTUAN IRAKASLEA DA JUDITH, ETA IMMUNOLOGIA ADARREKO AFILIATUA HARVARD-EKO MEDIKUNTZA ESKOLAN (BOSTON)
Bularreko minbiziaren aurkako immunoterapia ikertzen dut, hau da, nola erabili norberaren defentsak minbizia hiltzeko. Pazientearen defentsak ondo entrenatuta badaude, kimioterapiaren ordez erabil daitezke.
JUDITHEK JEDI SAGUA (just EGFP death inducing) GARATU ZUEN
Saguari tumore-zelula eraldatuak injektatzen dizkiote. Zelula horiek GFP (proteina berde fluoreszentea, haiek markatzeko) sortzen dute
Eta beren defentsak (linfozitoak) zelula berde horiek hiltzeko entrenatuta daude
JEDI SISTEMARI ESKER, ERRAZ IDENTIFIKA DAITEZKE TRATAMENDUARI AURRE EGIN DIOTEN TUMORE-ZELULAK (BORROKA IRABAZI DUTENAK)
ETA ISOLATU BEREN PROPIETATE BEREZIAK AZTERTZEKO
Nire ametsa da egunen batean minbizia sendatuta dagoela esatea, ez bakarrik atzera egiten ari dela
Laster akabatuko zaitugu!
JUDITH AGUDO & JEDI


PILAR DE LA PUENTEK (LEON) KARRERA KLINIKOAGOAK GUSTUKO ZITUEN ARREN, BIOLOGIA IKASI ZUEN
MEDIKUNTZA
BIOLOGIA
BAINA LABORATEGIETAN LAN EGITEAN, IKERTZEA ASKO GUSTATZEN ZITZAIOLA KONTURATU ZEN
SALAMANCAN INGENIARITZA BIOMEDIKOKO DOKTORETZA EGIN BITARTEAN, MEDIKUNTZAKO ADAR BATZUK GUSTATZEN ZITZAIZKIOLA OHARTU ZEN, BAINA...
Espainian ez dago aukerarik gustatzen zaidan adarrean :(
Kanpora joan beharko dut
HAINBAT LANPOSTU ESKATU ONDOREN, ST. LOUIS-EN ESKAINITAKOA ONARTZEA ERABAKI ZUEN
Eta punta-puntako proiektuetan lan egin nuen
GAUR, IRAKASLEA DA SOUTH DAKOTA-KO UNIBERTSITATEAN, SANFORD RESEARCH INSTITUTUKO IMMUNOTERAPIA ETA MINBIZIAREN BIOLOGIA DEPARTAMENTUAN, ETA BERE LABORATEGIA DU
Minbiziaren ingurunea ikertzen dugu, minbizia ez baita tumorea bakarrik, haren ingurunea eta hazteko jaten duena ere baizik
LABORATEGIAN, PAZIENTEAREN MINBIZIA (TUMOREA + INGURUNEA) BERE ZELULA KANTZERIGENOEKIN BIRSORTZEKO GAI DIRA. MODU PERTSONALIZATUAN AZTER DEZAKETE, MINBIZI BAKOITZA DESBERDINA BAITA.
A
B
C
HORRELA, TERAPIA DESBERDINAK PROBATU DAITEZKE LABORATEGIAN, ETA HORIEN ERAGINKORTASUNA IKUSI GAIXOARI EMAN AURRETIK
MIKELEN MINBIZI LATARATUA
Harro nago eredu aitzindari hau sortu izanaz. Etorkizunean erabili ahal izango dugu pazienteek terapia pertsonalizatuei nola erantzuten dieten aurreikusteko
TEKNIKA HAU HAIN DA AITZINDARIA NON ORAINDIK ERE FASE AURREKLINIKOAN DAGOEN
PILAR DE LA PUENTE


LUCÍA REGALES (GIJON) NATURAZ INGURATUTA HAZI ZEN
Ama, nola sortzen da bizia?
... emm
NATURAREKIKO MAITASUNAK BIOLOGIA IKASTERA BULTZATU ZUEN
HURBILEKO PERTSONA ASKOK MINBIZIA IZAN ONDOREN, GAIXOTASUN GENETIKOAK IKASTEKO INTERESA PIZTU ZITZAION LUCÍARI
Leonardo bekarekin, Eskozian ikas dezakezu genetika
Ba, horixe egingo dut. Eskerrik asko, irakasle, hain mentore ona izateagatik.
JAKITEKO GOSEAK HERRIALDE BATETIK BESTERA ERAMAN ZUEN LUCÍA. ESTATU BATUETAN BUKATU ZUEN, HANTXE EGIN AHAL BAITZUEN BENETAN NAHI ZUENA
AEB
Ingalaterra
Eskozia
ARLO AKADEMIKOAN URTE BATZUK EMAN ONDOREN, INDUSTRIAREN MUNDURA JO ZUEN
Gogorra da, baina, muga jo dudala edo gehiago ezin dudala ikasi uste dudanean, badakit joateko garaia dela
Memorial
Merck
EGUN, ONKOLOGIAKO ZUZENDARI ZIENTIFIKOA DA CURIS ENPRESA BIOTEKNOLOGIKOAN
2. belaunaldiko immunoterapian lan egiten dut, akituta daudelako tumoreari eraso egiten ez dioten defentsak indarberritzeko
DEFENTSEI TUMORE-ZELULEK JARRITAKO OZTOPOAK GAINDITZEN ETA HAIEI ERASO EGITEN LAGUNTZEN DIETEN SENDAGAIAK GARATZEN DITU. SENDAGAI HORIEK DEFENTSA-INHIBITZAILEAK BLOKEATZEN DITUZTE.
TUMORE-ZELULAK
Motibazio handia da egunero immunoterapiari buruz ikasten jarraitzea eta pazienteei dagoeneko mesede egiten diela ikustea.
LUCÍA REGALES
DEFENTSAK SENDAGAIRIK GABE
DEFENTSAK SENDAGAIEK INDARTUTA


Gogoratu pazienteek minbizia dutela, baina ezin dutela haren aurka egiten ari direna baino gehiago egin.
BENETAKO BORROKA ZIENTZIAN DAGO, ETA EMAKUME GERLARI HANDIAK DITUGU GURE BANDOAN
Minbizia desagerraraziko dugun ideia, minbizia gaixotasun homogeneoa balitz, ez da egia. Minbizi mota bakoitzerako berariazko ikerketak egin beharko ditugu, bakoitza mundu bat baita.
Ingeniaritza genetiko eta zelularrerako tresna berriak garatu behar ditugu, adibidez, immunitate-sistema manipulatzeko.
Doitasun-medikuntza da etorkizuna. Garapen-fase goiztiarrean dagoen arren, pazientearen tumorea aztertu ondoren zein den terapiarik eraginkorrena zehatz-mehatz jakiteko gai izango gara, etorkizunean.
ZIENTZIAK LAGUN ZAITZALA!